

## Gaizki-ulertua?

**Xabier Izaga  
Gonzalez**

**N**oa hua?», galdetu zion nire aurrean Etxarri Aranazko lagun batek Arbizuko ezagun bati. «Atorra yostia», erantzun zion hark. «Nik patxadatsu samar ikusi diat, ba», esan nion lagunari. Ezetz, ez zihoala ziztu bizian, eta ez zuela hori esan, alkan-dora erostera zihoala baizik.

Akordura etorri zitzaidan pasadizo hori lehengoan EAEko lehendakariari entzundakoan, ustez txerto irregularren gaineko azalpenak eman behar zituenean, triste zegoela esan zuenean, hain zuzen.

Lakuako Gobernuak ez duela azalpenik ematen idatzi behar nuen, baina ez da

guztiz egia. Batzuetan xehe-xehe, xehegi erantzuten dio, Arbizuko lagun hark ez bezala, galdetzen ez diotenari: «mozkor borroka»-ko zurruteroek Ertzaintzaren aurka hiriko gerrillarako materiala erabiltzen dutela, atzean ezker abertzalea dagoela... Azken hau tradizioa du, ordea.

Txertoen auzian ez dago errudunik, txertatuetatik harago. Eta zergatik ez dute azaltzen zergatik Gipuzkoako Aldundiak EAEko Ingurumen Legearen artikulua bat baliogabetzeko eskatu zuen? Gaizkiulerturen bat izan da akaso?

Gaizki-ulertua izan zen nire beste lagun batek izan zuena. Etxarri Aranazko

lagun harekin bere herriko hitz asko ikasi nuen nik; esate baterako, *uds* edo *uts*, gehienok esaten dugun 'ur' adierazteko. Egun batean lagun giputz bati esan nion ba al zekien Sakanan nola esaten duten ura, eta etxarriarrari galdetzeko. Han joan zen, hau bai, ziztu bizian:

–Juanito, hik zer eskatzen duk egarri haizenean?

–Nik? Garagardua!

–Ez... bai, baina esan nahi diat...

–A, bai, ulertzen diat. Normalian zerbeza esaten diat.

Nonbait ere Sakanako ura uherra dela uste du oraindik lagun horrek. •

## Beste 30 urte

**Xabier Mikel  
Errekondo**

**E**txe handia da Sabin Etxea. Familia handi baten etxe handia. Familia boteretsua, boteretsuena. Eta boterean jarraitu nahi du. Horregatik alderdi jeltzaleak lepoa luzatu eta burua altxatu egin du, datozen hamarkadei perspektibarekin begiratu eta estrategia irabazlea diseinatzeko. Horretarako dira abiatu Sabin Etxeko gotorkutik zaldunak Euskalduna jauregira jeltzaleen VIII. Aberri Batzarra burutzer, familia ezberdinak, bakoitza bere abizen ikurrekin, ezkutuekin eta lantzekin; alderdi-irabazlearen elite politikoa. Xede

bat eta bakarra, irabazi eta boterean gotortu, kosta ahala kosta. Helburua ez baita inoiz izan herria eraikitzea, etxea zaintzea baizik. Jeltzaleen elite politikoa-ren eta familia ekonomikoaren etxea.

Ezin ukatu bizkorak direnik, bizkorrenak, agian. Horregatik jarri ditu 30 bat aditu epe ertain eta luzera begira, eragiten diguten gai garrantzitsuenetan herritarrok etorkizunean izan genitzakeen ikuskerak antzematera: nazioa, kultura, euskara, instituzioak, ereserkia, autoterminazioa, etab. (emaitza Sabino Arana fundazioko "Hermes" aldizkarian). Orain,

laborategi lana dagokie, hots, xiringaz alderdiaren printzipioetan eta estrategian atal bakoitza dosi egokian txertatzea.

Alderdiak burua altxatu du, prismatikoekin urrunera begiratu eta hartu ditu notak, beste 30 urtez boterean gotortzeko behar dituen gakoak. Eta lepoa luzatuta bistan edukitzeak hotzikara sortuko balio bezala burua berehala luma artera ezkutatatu du berriro, inork moztu ez diezaion, inork hegemonia lapurtu ez diezaion.

Beste 30 urte sabindarren etxea zain-tzen. Beste 30 urte herririk eraiki gabe, herrigintzarik gabe... •